

ASISTENTZIA MEDIKU-FARMAZEUTIKOKO ASEGURU LIBREKO ENTITATEEN ESTATISTIKA (ALE), 2005. URTEA


EAEan osasuneko aseguru pribatuak gehitu egin ziren 2005ean

Norbanako edo familiako aseguru-polizak dituzten pertsona kopuruak behera egin du, eta poliza kolektiboak dituzten pertsona kopuruak gora egin du

Eustaten datuen arabera, 2005. urtean 319.788 pertsonak kontratatu zuten osasun-laguntzarako aseguru pribatua Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten aseguru-konpainiekin, hau da, aurreko urtean baino %2,8 gehiagok. Kopuru hori azken zazpi urteetako (1999-2005) handiena da. Osasuneko aseguru kolektiboak dira gehikuntza hau gehien eragin dutenak, denboraldi horretan asegurudunen %54,6ko gehikuntza jazo baita.

EAEn diharduten konpainiekin aseguru medikua duten pertsonak EAEko biztanleriaren %15,1 dira. Lurralde historikoen arabera, proportzio hori %20,2koa da Bizkaian, hori baita osasun-asistentzia arloan aseguratzeko joera handiena duen lurraldea; Araban %12,3koa da proportzioa eta Gipuzkoak du kopururik txikiena, %8.

Aseguratuen kopurua poliza motaren arabera, 1999-2005



Iturria: Eustat

Banakako edo familiako modalitateak izan zuen aseguratu gehien (%48,2), gero **aseguru kolektiboak** (enpresak edo beste talde zehatz batzuk) %34,6arekin eta azkenik **mutualitate publikoak** (%17,2). 2004. urtearen aldean, asegururu kolektiboetan hazi da gehien asegurudun kopurua, %9,4ko gehikuntzarekin, estatuan gertatu den hazkundearen antzekoa (%9,9). Bestalde, mutualitate publikoek aseguraturako kolektiboak ere gora egin du zertxobait (%0,3). Norbanako edo familiako asegurua duten pertsona kopuruak behera egin du (-%0,7).

Aseguratu gehienek, %98ak, oraindik nahiago dituzte oraindik **asistentzia mediku-kirurgikoan** estaldura ematen duten mediku-aseguru pribatuak arreta zehatzeko beste asegururak baino (esaterako, hortz-asegurua).

Osasun-laguntzako aseguruen sektorean, 2005. urtean, guztira 169,7 milioi euroko **primak bildu ziren**, hau da, Estatuko guztirakoaren %4,4 inguru eta Euskal Autonomia Erkidegoko BPGaren %0,3. 2004. urtearen aldean prima kopurua %7,1 gehitu zen; hala ere, hazkunde hori Estatukoa (%9,5) baino txikiagoa izan zen.

Euskal Autonomia Erkidegoan, **asegurudun bakoitzaren urteko prima, batez beste**, 531 euro izan zen, estatukoaren azpitik (540 euro). Batez besteko prima hori %4,1 gehitu zen 2004. urtekoaren aldean. Estatukoa %6,1 hazi zen. Batezbesteko primarik txikiena asegururu kolektiboena izan zen (509 euro), eta handiena, norbanakoarena edo familiarena (544 euro).

Osasuneko asegururu medikua duten pertsonen aseguru-entitatearen kontura 1.220.522 **kontsulta mediku** egin zituzten guztira (2004. urtean baino %3,3 gehiago), hau da, asegurudun bakoitza 3,8 aldiz joan zen medikuarengana, sektore publikoan (ospitaleetan eta ospitalez kanpoko zentroetan) batez bestez egiten diren 7,2 bisitaldien erdia baino ez. Gehien eskatu ziren espezialitateak traumatologia, tokoginekologia, pediatria eta oftalmologia izan ziren.

Ospitaleetan emandako arretari dagokionez, mediku-aseguratzaileetatik etorritako gaixoen artean 49.236 **ospitaleratu** egin ziren, aurreko urtean baino %4,9 gehiago. Batez besteko egonaldia 3,1 egunekoa izan zen. Guztira 33.117 **ebakuntza** egin ziren, aurreko urtean baino %2,9 gehiago. Horietatik ohikoenak kirurgia orokorrekoak, traumatologiakoak, oftalmologiakoak eta ginekologiakoak izan ziren.

Asistentzia mediko-farmazeutikoko aseguru libreko entitateen bilakaera

	EAE			Estatukoa (*)	
	2004	2005	Δ 05 / 04	2005	Δ 05 / 04
KARTERAREN LABURPENA					
Aseguratu kopurua	311.148	319.788	2,8	6.983.763	3,0
Poliza kopurua	162.627	167.373	2,9		
Sari kopurua (mila €-tan)	158.519	169.744	7,1	3.850.123	9,5
Aseguratu bakoitzeko batez besteko saria (€)	510	531	4,1	540	6,1
MODALITATEAK (aseguratu kopurua)					
Banakoak edo familiakoak	155.153	154.076	-0,7		
Kolektiboak	101.119	110.652	9,4		
Mutualitate publikoak	54.876	55.060	0,3		
MEDIKUEN ETA OSPITALEETAKO JARDUERA					
Kontsultak (milakoetan)	1.182	1.221	3,3		
Ospitaleratutako gaixoak	46.922	49.236	4,9		
Ospitaleetan egindako ebakuntza kirurgikoak	32.185	33.117	2,9		

(*) ICEA (Aseguru-entitateen eta pentsio-fondoen arteko ikerketa kooperatiboa)

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tel:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp